



ETORKIZUNeko BIDEAK ZABALTZEN DITUGU

2020-2025 aldirako
plangintza estrategikoa

Aurkibidea

Aurkezpena	5
Testuingurua	8
Helburua	10
Erakundearen estiloa	11
Ikuspegia	13
Helburu estrategikoak eta ekintza-lerroak	14
Kausen arabera esku hartzeko eredua	18
Adierazle orokorrak	27
Alboan-en plan estrategikoak Agenda 2030eko GJHen alde egiten dituen ekarpenak	29

Zabaldu itxaropena zauden tokian zaudela, adore emateko, kontsolatzeko, lasaitzeko eta bihotz emateko.

Mesedez, zabaldu etorkizuneko bideak, edo, gaur egungo literato baten hitzetan, begiratu etorkizunera. Zabaldu etorkizuneko bideak, sortu aukerak, eta lagundu aniztasunen oinarrituta pentsatzen eta jokatzeko.

Fratelli Tutti – Francisco aita santua

AURKEZPENA

Plan estrategiko berri bakoitzak aukera ematen digu gure helburua erakunde gisa eta, bereziki, gizarte gisa bizi dugun unera modu eksklusibo eta eguneratuan egokitzeko. Alabaina, gero eta zailagoa da hori, batetik, gure ekosisteman eragile asko daudelako eta, bestetik, gure errealitatean eragina duten prozesu sozial eta ekonomikoak dinamikoak direlako. Hala ere, garai honetan, aukera asko daude, eta eragile sozialen ahalduntzeak eta elkar ulertzeko esparru berriek, minoritarioak izanda ere, gizarte-aldaketarako koordinazioa eta aliantzak ahalbidetzen dituzte, hein handi batean. Hori dela eta, lan handia egin dugu datozen sei urteetan gure ahaleginak bideratzeko, elkartutako gainerako erakundeekin ahalik eta sinergia handiena lor dezagun eta gure lanaren eragina eta kalitatea areagotu ditzagun, gure helburuari leial.

Horrela, Alboan-en 2020-2025 aldirako Plan Estrategikoaren ezaugarri nagusia aliantzen dimentsioa da, bereziki Entreculturas-ekin sortutakoa, Espainiako beste GKE jesuita. Bi erakundeetako taldeek nabarmen eraldatu nahi ditugun bidezko bost kausa identifikatu ditugu. Bidezko kausak gure lanaren sektoreak dira, eta haietan jarriko dugu arreta osoa justiziaren eta gizarte-eraldaketaren alde. Hori dela eta, Alboan-ek eta Entreculturas-ek esparru estrategiko komun batez arri dute, zeina bost kausa hauek osatzen baitute: 1. Kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubide unibertsala bermatzea. 2. Migratzaileen eta errefuxiatuen bizitza duina defendatzea. 3. Gizartearen eta ingurumenaren arloko justizia sustatzea. 4. Partaidetza eta herritartasun globala indartzea. 5. Genero-ekitate sustatzea.

Kausa horiek dira planaren ardatza. Plana kaleratu dugun unea oso garrantzitsua da Jesusen Lagundiaren antolaketan, ez bakarrik gure herrialdean, baizik eta baita mundu osoan ere. Azken urte honetan ezagutarazi ditugu jesuitok gure Lehentasun Apostoliko Unibertsalak. Lau orientabide dira, eta mundu osoko gure obra guztiak haiei jarraikiz lerrokatzen saiatzen gara. Haietan oinarrituta begiratzen dugu mugetara, giza periferietara eta gizartetik kanpo daudenengana. Gazteei laguntzeko eskatzen digute, eta etxe komuna zaintzera, eta konbertsio sakonak eskatzen dizkigute fedearen eta espiritualtasunaren aldetik. Ingurune horretan, oso erraza da helburua lortzeko aliantzak sortzea, pertsonalki eta instituzionalki aurrera egiten dugu, eta gizarte-justizia sustatzeko eta egiturak aldatzeko erabakitasunez lan egiten dugu.

Bide horretatik jarraituz, plan honetan Alboan-ek Garapen Jasangarrirako Helburuen Agendarekin ere bat lerrokatu nahi du, hark proposatzen baitigu mundu bidezkoa eta jasangarria eraikitzeko bide-orria. Horrela, errazagoa izango da gure

agenda gizarte zibileko gainerako eragileekin, gobernuekin, herritarren enpresekin eta agentzia multilateralekin sinkronizatzea.

Beraz, asmo handiko plan bat dugu hemen, baina baita egingarria ere. Bertan, Alboan-ek engranaje lokalaren, nazionalaren eta nazioartekoaren parte gisa kokatzen du bere burua, inoiz baino gehiago, eta engranaje horretan gero eta eragin handiagoa izango du zer ekarpen egiten duen baldin badaki eta zubi izateko, aliantzak sortzeko eta pertsonak eta erakundeak gizarteraldaketako prozesu dinamikoekin lotzeko bere gaitasuna erabiltzen baldin badaki.

Plan hau taldean lan handia egitearen emaitza da. Eskerrik asko Alboan-eko kide guztiei, denbora, energia eta iritziak eman dituzuelako, datozen urteetan Alboan-ek munduari ekar diezaiokeenari buruzko esparru benetan itxaropentsu bat sortuz. Orain, errealitate bihurtu behar dugu.

Dani Villanueva, SJ
Alboan-en Patronatuko presidenteorde
exekutiboa

Zerbait egiteko
erabakia hartzea
da zailena; hortik
aurrera eutsi
egin behar diozu,
besterik ez.

Amelia Earhart

TESTUINGURUA

Gure mundua gaur egun

Gaur egun, mundua sakon eta bizkor ari da eraldatzen.

Aurretik gizateria ez zen inoiz iritsi halako oparotasun- eta ongizate-mailara. Bizi-itxaropena luzatu egin da, osasun-estaldura handiagoa da, eta hezkuntza gehiagorengana iritsi da. Baliabide material ugari ditugu ezbeharrei aurre egiteko, eta munduko pertsona guztientzako elikagai nahikoak ditugu, klimaren gorabeherak eta hondamendi naturalak kontuan hartu gabe.

Hala ere, gure mundua larri zaurituta dago gizartearen, ekonomiaren eta generoaren alorreko egitura bidegabeen ondorioz. Jende asko eta asko bizi da muturreko pobrezian eta goseak jota. Herrialdeen arteko desberdintasuna oso handia da, eta gero eta handiagoa da. Premiazko neurriak hartu behar dira ingurumen-krisiari aurre egiteko, nagusi den sistema ekonomikoak ezarri dituen suntsipen-dinamikak geldiaraziz. Inklusioa eta jasangarritasuna dira gaur egungo gure erronka handiak eta elkarri lotuta daude.

Zauri larri horiek milioika pertsona eta komunitateren sufrimendua dakarte. Haietako askoren giza eskubideak urratzen dira, eta baztertuta bizi dira oinarrizko zerbitzu funtsezkoenak erabili ezin dituztelako. Genero-desberdintasunak daude; haien ondorio, emakumeak sozialki eta kulturalki zokoratuta daude, eta ezin dute beren eskubideez oso-osorik baliatu, ezta beren gaitasunak erabili ere. Gero eta ugariagoak dira indarkeriatik, pobreziatik edo ingurumen-narriaduratik ihes egiten duten pertsonen mugimendu handiak.

Gizateriaren arazoak metatuz doaz, eta badirudi haien kontrola galdu dugula.

Arazo horien jatorria gizakiengan dago. Ondasun komunak ekoizteko, kontsumitzeko eta kudeatzeko dugun moduak sektore gutxi batzuen alde egiten du, eta beste batzuk zigortzen. Harremanetan bidegabekeria, botererako grina eta kapitala dira nagusi bizimodu duinaren gainetik, eta alferrikako bazterkeria eta sufrimendua eragiten dituzte. Gaur egun, arazo horiek areagotu egin dira demokraziaren krisi sakon baten eraginez; krisi horren erakusgarri, populismoak, inpunitatea eta ustelkeria dira.

Hunkigarria da pentsatzea arazo horiek konponbidea dutela. Premiazkoa da bizitzaren zaintza erdian kokatzea, oro har hegoaldean baztertuta geratzeko zorian dauden milioika pertsonaren egoera hobetzea, eta boterea birbanatzea: beste gobernantza nazional eta nazioarteko bat, beste ekonomia bat eta pertsonen arteko harreman berriak.



Egin dezakegu zerbait: Herritartasun globala

Testuinguru honek herritar globalak behar ditu gizateriaren kausa handiak defendatzeko. Bestelako mundu bat lor daitekeen itxaropenari eusteko gai diren eta berau eraikitzeko konprometituta dauden pertsonak. Elkartasunak lotutako komunitate askotariko eta plural bakarreko kide direla ohartarazten dien herritartasun globaleko espirituak bultzatutako emakume eta gizonak. Gizaterian nagusi diren sufrimenduak eta itxaropenak bere egiten dituzten herritarrak. Gizateriari gertatzen zaion guztia egiten dute bere.

Espiritua duten herritarrak ere behar dira; hau da, ongizaterikez duten eta demokrazian parte hartu ezin duten guztien eskubideak babestu nahi dituztenak. Bazterkeria eta bidegabekeria sortzen duten egiturak salatzen dituzten herritarrak.

Guztion ona, komunitate ahulen inklusioa eta etxe komunaren zainketa sustatzen dituzten bizimodu, harreman ekonomiko eta partaidetza modu berriak garatzeko bezain sortzailea.

Gaur egun halako herritarrak sortzeko prozesu betean dago mundua. Alboan-ek, gizarte zibil antolatuaren parte gisa eta baztertuta geratzeko zorian daudenekin dagoenez, bat egiten du munduan giza duintasuna errespetatzeko prozesu horrekin, mundua gizatiarragoa, bidezkoagoa, ekitatiboagoa eta jasangarriagoa izan dadin.



MISIOA

Alboan-en misioa

NAZIOARTEKO LANKIDETZARAKO EUSKADIKO ETA NAFARROAKO GKE JESUITA GARA. GIZARTE-ETA INGURUMEN-JUSTIZIA ETA GENERO-BERDINTASUNA SUSTATUKO DITUEN **HERRITARTASUN GLOBALA** ERAIKITZEN DIHARDUGU. BESTE PERTSONA ETA ERAKUNDE BATZUEKIN BATERA, TOKIAN-TOKIAN ETA ORO HAR BAZTERKERIA ERAGITEN DUTEN EGITURAK **ERALDATU** NAHI DITUGU, ETA HARREMAN SOZIAL ETA EKONOMIKO BERRIAK SUSTATU.

Gure misioa elkarlanaren bidez zabaltzen dugu, eta hainbat sare eta plataformaren parte gara, bereziki lokalki eta nazioartean Jesusen Lagundiari lotuta daudenen parte.

Zer egiten dugu?

Entreculturas-ekin batera, Espainian dagoen lankidetzarako nazioarteko beste GKE jesuitarekin batera, bost kausatan ardaztutako esparru estrategiko komun bat zabaldu dugu:



KALITATEZKO
HEZKUNTZA
JASOTZEKO ESKUBIDE
UNIBERTSALA
BERMATZEA



MIGRATZAILEEN ETA
ERREFUXIATUEN
BIZITZA DUINA
DEFENDATZEA



GIZARTE- ETA
INGURUMEN-
JUSTIZIA
SUSTATZEA



PARTAIDETZA ETA
HERRITARTASUN
GLOBALA INDARTZEA



GENERO-
EKITATEA
SUSTATZEA

Zergatik egiten dugu hori?

Gure nortasuna Jesus Nazaretekoaren eta haren ebanjelioaren jokabidean inspiratuta dago, giza eskubideetan oinarrituta, eta fedea eta justizia sustatzen dituen misio jesuitan errotuta. Hori dela eta, proposamen ausarta, konprometitua eta koherentea eskaini nahi dugu, pertsonak eta natura duin bihurtzea eta uztartzea erdian kokatuko dituen.

ESTILO INSTITUZIONALA

Misio hori errealitate bihurtzeko, batez ere alderdi hauek lantzen ditugu:

- a. **Mugetan bizi diren baztertuak eta ahulak dira gure ekintzaren ardatz**, eta haien ondoan gaude, afektiboki eta efektiboki. Haiek ematen diote zentzua eta adorea egiten dugunari, eta haien kausak oso kontuan hartzen ditugu erabakiak hartzen ditugunean. Baztertuengandik hurbil egoteak gure misioan indartzen eta berresten gaitu.
- b. **Gure lan egiteko moduak elkarri laguntzea du ezaugarri**, bai gure taldeko pertsonen dagokionez, bai lankide ditugun erakunde elkartuei dagokionez. Gure ustez, elkarri laguntzea entzuteko, hitz egiteko eta etengabe laguntzeko bide partekatu bat da; bi aldeentzat da aberasgarria, eta garena eta egiten duguna sendotzen ditu.
- c. **Bide ematen diegu oinarritzat ditugun espiritualtasunari eta zentzuzko dimentsioei**, jabetzen baikara haietan sortzen direla elkartasunaren eta justiziaren kultura eraikitzen laguntzeko usteak eta motibazioa. Espiritualtasun eta kultura askotako pertsonentzako espazio irekiak gara. Jesusen Lagundiaren tradizioan oinarrituta, **batera aztertzen ditugu gaiak erabakiak hartzeko**, “behar handienaren”, “fruitu handienaren” eta on “unibertsalagoaren” irizpideei jarraikiz.
- d. **Aktiboki egiten dugu lan itxaropenari eusteko**, bai salaketa profetikoari dagokionez, bai ordezkotz aukera sortzaile eta berritzaileen bilaketari dagokionez. Alaitasunez bizi nahi dugu, pertsonalki eta instituzionalki jasotako on guztia ospatuz eta eskertuz. Instrumentaltasuna gainditzen duen eta errealitate berriak eta beste aukera batzuk zabaltzen dituen **komunikazio eraldatzailea** sustatzeko konpromisoa hartzen dugu.
- e. **Kalitate eta profesionaltasun gorena lortu nahi dugu** gure lanean, ebaluazio kritikoaren, trebakuntzaren, etengabeko ikaskuntzaren, hausnarketaren eta analisi sakonaren bidez. Garatzen dugun gardentasunaren kulturak, kontuak emateko legezko betebeharretatik haratago, erakundearen lanetik ondorioztatzen diren politiken, estrategiaren, jardueren, emaitzen eta ebaluazioen berri ematen du.
- f. Misio hori aurrera eramateko, **elkartasunezko komunitate bat sortzea dugu amets; komunitate horrek barne-koherentzia bilatzen du** egiten duenaren eta denaren artean, eta espiritualtasuna, elkartasuna eta konfiantza lantzen ditu ingurunearekin harmonian dagoen bizimodu erraza oinarritzat hartuta. Komunitate askotarikoa eta abegitsua, gizarte demokratiko eta solidarioak eraikitzen parte hartzea eta boluntariogisa lan egitera gonbidatzen duena. Baztertuta geratzeko zorian dauden pertsonen eta komunitateekin konprometitu.



Jainkoak oraindik
gizaterian
itxaropena galdu
ez duelako mezua
ekartzen digu
izaki bakoitzak
jaiotzean.

Rabindranath Tagore

IKUSPEGIA

Non egon nahi dugu 6 urte barru?

Testuinguruak dakartzigun erronkei erantzuteko eta herritarrak sortzeko eta gizarte-eraldaketa lortzeko lanaren alde ekarpen esanguratsuak egiten jarraitzeko. Datozen urteetan, gogor egingo dugu lan Alboan-ek ezaugarri hauek izan ditzan:

1. ERALDATZAILEA, genero-harreman berriak, hospitalitatearen kultura, diru-sarrerak sortzeko jarduerak eta kontsumo-ohitura arduratsuak eta jasangarriak sustatzen dituzten aukera bideragarriak eta zehatzak eskaintzen dituelako.

2. Giza eskubideak urratzearen, lekualdatze behartuen eta gure bizimoduen arteko loturak **IKUSARAZI ETA SALATZEN DITUENA,** dimentsio lokaletik globalera erantzun integralak eskainiz.

3. SAREKOA, partaide duten plataformen kide aktibo gisa, sortzen diren prozesuen elementu katalizatzaile gisa duen esperientzia eta sare zabalagoen parte gisa dituen gaitasunak eskainiz.

4. BERRITZAILEA, bai hospitalitatea eta ekitatea sustatzen dituen herritartasun globala eraikitzeko eskaintzen dituen hezkuntza-metodologiei dagokienez, bai baztertutako komunitateen garapena sustatzen gizarte- eta ekonomia-eragile berriak inplikatu dituzten eragile anitzeko ekimenak ezartzeari dagokionez.

5. Sustatzen dituen bidezko kausen prozesuetan egiten duen lanaren gardentasunagatik eta kalitateagatik **AITORTUA.**

6. Misorako **JASANGARRIA,** laguntzan oinarritutako lan egiteko moduak erabiltzen dituen talde motibatu eta konprometitu batekin eta gizarte-oinarri berritu eta aktibo baten babesa duen finantzaketa dibertsifikatuarekin.

HELBURU ESTRATEGIKOAK ETA EKINTZA-LERROAK

2020-2025 aldirako plana zortzi helburu estrategikoren inguruan egituratzen da. Lehenengo bostek defendatu nahi ditugun bidezko kausak zehazten laguntzen digute, eta gainerako hiruek haien bideragarritasuna posible egiten duten beharrezko baliabideak finkatzen.

Jarraian, helburu estrategiko bakoitza xehatuko dugu, baita haiek zehazten eta garatzen dituzten lotutako estrategiak ere.

1. HELBURUA. Bizitzan pertsona guztiek hezkuntza-eskubidea eta ikasteko eskubidea izango dutela bermatzea.

Txiki-txikitatik hezkuntza-eskubidea bermatzea, eta bizitzan dauden ikasteko beharrei erantzun dakien sustatzea, kalitatearen, inklusioaren eta ekitatearen ikuspegitik, hezkuntza eraldatzailea eta herritartasun globalari zuzendua sustatuz, hezkidetzaren ikuspegitik.

Ekintza-lerroak

- 1.1. Gizartea aldatu nahi duen hezkuntza-eredu eraldatzaile bat sustatzea.
- 1.2. Hezkuntza inklusiboa.
- 1.3. Hezkuntza-kalitatea eta -berrikuntza.
- 1.4. Mugetako hezkuntza.
- 1.5. Hezkuntza-eskubidearen gaineko eragin sozial eta politikoa.

2. HELBURUA. Mugikortasun behartuko testuinguruetan pertsonen bizimodu duina eta eskubideen errespetua defendatzea.

Jatorrian, bidean, helmugan eta itzuleran migratzaile behartuei eta errefuxiatuei laguntza eta babesa eman dakien sustatzea. Mugikortasun behartuko prozesu horiek eragiten dituzten kausak desagerrarazten laguntzea. Geure gizarteetan harrera-prozesu egokiak ahalbidetuko dituen hospitalitatearen eta adiskidetzaren kultura sortzea.

Ekintza-lerroak

- 2.1. Lekualdatze behartuko testuinguruetan pertsonen laguntzea, lan humanitarioa eta garapena lotuta.
- 2.2. Hospitalitatearen kultura sustatzea.
- 2.3. Migrazio-zikloko etapetan ahultasun-egoerak/-kausak aztertzea.
- 2.4. Mugikortasun behartua sortzen duten politikak eta egiturak aldatzeko eragitea.
- 2.5. JRS, SJM eta kausari lotutako beste eragile batzuekin antolatzea.

3. HELBURUA. Harreman ekonomiko eta sozial bidezkoak, ekitatiboak eta jasangarriak lortzen lagunduko digun gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzea.

Gizarte- eta ingurumen-justizia hauetara bideratuta dago: munduko pertsona eta komunitate ahulenak beren eskubideak defenda ditzaten ahalduz; guztion ona eta elkartasuna lortzen lagunduko digun bizimodua lantzea; naturako ondasunak zaintzea; belaunaldiarteko elkartasun berritua ekarriko duen bidezko garapenaren alde lan egitera.

Ekintza-lerroak

- 3.1. Naturako ondasunen gobernantza sustatzea eta hartan eragina izatea, ondasun horiek kentzearen eta espoliatzearen ondorioak jasaten dituzten herritar ahulei arreta emanaz bereziki.
- 3.2. Ezagutza sortuz ekimen ekonomiko alternatiboak babestu eta zabal daitezen sustatzea, gure erakunde elkartuen ekimenak babestuz eta bultzatuz eta lankidetzak eskema berriak sortzeko zubi-lanak eginez.
- 3.3. Bizimodu (pertsonal eta instituzional) jasangarriagoak, solidarioagoak eta bizitza defendatzearekin konprometituagoak sustatzea.
- 3.4. Enpresen jardunbideak gizarte-eraldaketarantz bidera daitezen ahalbidetzea eta sustatzea.

4. HELBURUA. Guztion onerako herritartasun globala eta partaidetza demokratikoa eraiki daitezen sustatzea.

Ekintza soziopolitikorako herritartasun global antolatua garatzen laguntzea, hauen bidez gizarte-eraldaketako prozesuak sustatuz: Herritartasun-eremuetatik kanpo geratzen diren taldeak ahalduz; guztion onerako izango den kultura demokratikoa eraikitzea; boluntariotza parte hartzeko eta eraldatzeko bide gisa hartu; sareetan herritarrak antolatu; pertsona kontzienteak, kritikoak eta konprometituak trebatu; espiritualtasuna sustatu, pertsonalki hazteko eta zentzua bilatzeko. Gazteengan eta generoaren ikuspegian arreta berezia jarritz.

Ekintza-lerroak

- 4.1. Herritartasun globalerako eta partaidetza demokratiko ekitatibo, jasangarri, inklusibo eta kulturartekorako baldintzak sortzea.
- 4.2. Herritartasun globala sareetan antolatzea.
- 4.3. Nazioarteko eta tokiko boluntarioak sustatzea.
- 4.4. Bazterketa-testuinguruetan herritartasuna eta partaidetza sustatzea.
- 4.5. Ulermen globaleko esparruak sustatzeko komunikazioa bultzatzea, justiziaren zerbitzura dagoen aukera pedagogiko eta politiko gisa, herritar ahulen ahotsa entzunarazteko eta munduaren ikuspegi itxaropentsua eskaintzeko.

5. HELBURUA. Emakume eta gizonen artean harreman ekitatiboak eraikitzea eta genero-indarkeria murrizten laguntzea.

Eskubideetan eta zainketetan oinarritutako genero-berdintasunaren diskurtsoa sustatzea, gizartearen bidezkoa, berdintasunezkoa eta elkartua izateko oinarri gisa. Kasu honetako lanari bi dimentsiotatik helduko zaio:

Justizia: mundu osoan emakumeek bizi duten menpekotasun-egoera, ororen gainetik, bidegabekia eta mespretxagarria da, eta giza eskubideen kontra da.

Aldaketa kulturala: femeninoarekin lotutako balio batzuk eta orain nagusi diren maskulinoarekin lotutako beste batzuk integratuko dituen justiziaren eta ekitatearen kultura bultzatu behar dugu.

Ekintza-lerroak

- 5.1. Globalki eta lokalki genero-desberdintasunak ikusaraztea, haien inguruan sentsibilizatzea eta haietan eragitea.
- 5.2. Hezkuntza-arloan esperientzien zubi gisa balioko duen lana sustatuko duten hezkidetzaren proposamenak bultzatzea.
- 5.3. Emakume eta nesken aurkako indarkeria saihestea.
- 5.4. Emakumeak eta gazteak ahaldunduz.
- 5.5. Eraldaketa pertsonal eta instituzionaleko prozesuak sustatzea, baita helburu estrategiko honen zeharkako dimentsioa ere.

6. HELBURUA. Jesusen Lagundiaren misioaren inguruan antolatzea eta lan egitea.

Jesusen Lagundiaren misioa gauzatzen laguntzea:

- Esparru globala (Lehentasun Apostoliko Unibertsalak eta nazioarteko sareak)
- Espainiako probintzietan (probintziako proiektua, sektore sozialaren garapena, intersektorialitatea ahalbidetuz eta lurralde-dinamismoa sustatuz)
- Alboan-en eta Entreculturas-en artean integrazio-prozesuan sakontzea.

Ekintza-lerroak

- 6.1. Jesusen Lagundiaren misio orokorrerako proiektu eta egituretan dugun presentzia eta haiei egiten diegun ekarpena sustatzea (bereziki FyA, JRS eta gizarte-zentroak).
- 6.2. Plataforma apostolikoetan modu aktiboan eta konprometituan parte hartzea.
- 6.3. Gizarte-sektore bakoitzetik probintziako proiektu apostolikoaren alde egitea eta sektoreen arteko lana sustatzea.
- 6.4. Integrazioaren erakunde-garapena sustatzea (politikak, prozedurak, lantalde komunak...) eta elkarlanaren eta sareko lanaren kultura bultzatzea.

7. HELBURUA. Nortasun komuna duten elkartasun-komunitate kohesionatuak.

Taldeak elkartasun-komunitate gaitu, koherente, konprometitu eta kohesionatu gisa garatzea. Eraldatzeko, elkartzeko eta zaintzeko toki gisa garatzea, erakundearen eta pertsonen nortasuna, misioa eta espiritualtasuna lantzeko.

Ekintza-lerroak

- 7.1. Gure erakundeak topaketarako eta harrerarako toki bihurtzea, San Inazioaren espiritualtasunean inspiratutako nortasun komunean sakonduz.
- 7.2. Taldearen eskumenak eta gaitasunak gara daitezen sustatzea, misioa behar bezala zabaltzeko eta pertsonak zaintzeko.
- 7.3. Kausekiko koherentzia instituzionala sustatzea eta zaintzea.
- 7.4. Gure lan-inguruneetan adingabeen eta ahulen babesa eta, oro har, pertsonen duintasuna bermatzen duen kultura sustatzea, babesaren aldeko eta jazarpenaren kontrako politikak eta protokoloak martxan jarritz.

8. HELBURUA. Jasangarritasun instituzionala misioaren zerbitzura.

Misioa garatzeko jasangarritasun finantzarioa eta instituzionala indartzea, gardentasuna, berrikuntza eta kultura ebaluatiboa sustatuko dituen ikuspegi integral eta koherente batekin.

Ekintza-lerroak

- 8.1. Aliantzen aniztasuna eta jasangarritasun instituzionala bermatuko duten plan instituzionalak bultzatzea.
- 8.2. Gizarte-oinarria handitzeko eta fidelizatzeko estrategia berriak sustatzea, baita diru-sarrerak dibertsifikatzeko eta handitzeko estrategia ere.
- 8.3. Gure ekintzak lan-lerro guztietan duen eragina neurtzea eta ebaluatzea, ikasteko eta hobetzeko tresna gisa.
- 8.4. Etikoki eta sozialki arduratsuak diren gure inbertsio-politiketan aurrera egitea.
- 8.5. Gardentasunean eta kontuak ematean sakontzea.
- 8.6. Lan egiteko moduak eguneratzen dituen erakunde berritzaile eraginkor eta malgu baterantz aurrera egitea.

KAUSEN ARABERA ESKU HARTZEKO EREDUA

Alboan-en esku hartzeko eredua misioaren zikloan oinarrituta dago. Misioaren bidez, gure ekintza ulertzen eta antolatzen dugu, eta defendatzen ditugun kausen agenda zabaltzen. Dimentsio horiek gure mugetatik haratago eta gure ingurunean bertan egiten dugun lana biltzen duen prozesu integral baten parte gisa ikusten ditugu. Fase hauek ditu ereduak:



Laguntzea eta zerbitzatzea

Partekatzen ditugun bidezko kausak defendatzeko bidean laguntza ematen eta jasotzen dugu, harreman asimetrikoak sortuta. Harreman leiala dugu hegoaldeko erakundeekin, gurekin konprometitzen diren pertsonekin elkartzen gara, edo etengabeko harremana dugu gizarteko zentro eta taldeekin; eta horrela ematen eta jasotzen dugu laguntza.

Bide partekatu horretan, besteren eskura jartzen ditugu dauzkagun baliabideak haien bizibaldintzak hobetzeko: nazioarteko lankidetzaproiektuak, ekintza humanitarioa eta gizartejustiziaren alde pertsonalki eraldatzeko hezkuntza- eta prestakuntza-ekintza.

Ezagutza sortzea

Ikerketaren bidez, zeinak zerbitzuaren esperientzia hartzen baitu abiapuntu eta bere gain ezagutza akademikoa hartzen baitu. Ekintzatik eta presentziatik sortzen da, eta baztertuta dauden pertsonen alde errealitatean eragina izateko moduak bilatzen ditu. Gure sentsibilizazio-, hezkuntza- eta mobilizazio-proposamena garatzeko ikerketa bat.

Sentsibilizatzea, hezteia eta mobilizatzea

Sentsibilizazioak pertsona eta gure kultura eraldatzea du helburu. Ezarri nahi dugun berritasuna iragartzen duten ideiak, jarrerak, aldarreak, jarrerak eta sinboloak zabaltzen dira. Herritartasun globalerako, gizarte-mobilizaziorako, komunikaziorako, boluntariorako eta abarrerako hezkuntza eraldatzaileko ekintzen bidez zabaltzen dugu.

Eragitea

Eragin publikoaren eta eraldaketa estrukturalaren helburua da gure lanak ez bakarrik epe motzera izatea eragina, baizik eta denboran jasagarriak diren ereduak sortzea. Eragin politikoaren helburua da botere politikoa dutenen eta beren interesak entzunarazi nahi dituztenen arteko lankidetzat lortzea. Gure kasuan, gizarte-mobilizazioaren, sareko lanaren eta erabakiak hartzen dituztenekiko (publikoak eta pribatuak) elkarrizketaren bidez garatzen da.

Jarraian, kausa bakoitzerako ereduaren zehaztapen nagusiak **aurkeztuko ditugu, infografiaren bidez**.

KAUSA



KALITATEZKO HEZKUNTZARAKO ESKUBIDEA



* Entreculturas-ekin batera garatutako ekintzak

FE Y ALEGRIA Herri-hezkuntza integralaren eta gizarte-sustapenaren aldeko nazioarteko
EDUCSI Espainiako Ikastetxe Jesuiten Sarea

Ikastolen Elkarte Ikastolen sarea
GUJERAT Indiako estatua

KAUSA



BEHARTUTA MUGITZEAN BIZIMODU DUINA BABESTE

Migratzaileei eta errefuxiatuei laguntzea:

- JRS Aintzira Handietan, Mendealdeko Afrikan, Kolonbian eta Venezuelan

• Erdialdeko Amerikako* eta Mexikoko RJM

• Kolonbiako eta Venezuelako SJR


- Emakumeek Martxan programa - Afrika

- Migrazioei eta aniztasunari dagokienez ikasle eta irakasleen pertzepzioak aldatzea lortzeko hezkuntza-gakoak

• Hospitalitate-ekintzak sustatzea

- Emakumeek Martxan programa: mobilizazio-, kaptazio- eta trebakuntza-ekintzak Europan **
- Gizarte inklusiboa eta kulturartekoa eraikitze hezkuntza-proposamena. Mugetatik Haratago - Más allá de las fronteras, CHANGE proiektu europarra

- Emakume errefuxiatu, lekualdatu eta migratzaileen eskubideak, SJM-rekin batera. Nazioarteko babes-sistemak arta ditzan emakumeek jatorrian, bidean eta helmugan jasaten duten askotariko indarkeria agerian jartzea.



• Europar Batasunaren finantzaketa lortzea hospitalitate- eta migrazio-ekintza integraletarako ***

- Gizarte kulturartekoa eta abegitsua eraikitze hezkuntza-proposamena:
- Mugetatik Haratago
- "CHANGE" proiektua, Europako JRS-rekin batera



* Entreculturas-ekin batera garatutako ekintzak

** Europako SJM eta JRS-rekin batera

*** Jesusen Lagundiaren Gizarte Sektorearekin batera

JRS / SJR Errefuxiatuentzako Zerbitzu Jesuita

RJM Migratzaileentzako Sare Jesuita

SJM Migratzaileentzako Zerbitzu Jesuita

KAUSA



GIZARTE- ETA INGURUMEN-JUSTIZIA: BALIABIDE NATURALEN ERABILERA ETA KONTROLA



* Entreculturas-ekin batera garatutako ekintzak


Justice in Mining Meatzaritza Justiziaren Nazioarteko Sare Jesuita
CIDSE Gizarte Justiziaren aldeko Elkarte Katolikoaren Sarea

Eurac Erdialdeko Afrikaren aldeko GKE europarren Sarea
REPAM Eliza Sare Panamazonikoa

KAUSA



GIZARTE- ETA INGURUMEN-JUSTIZIA: GARAPEN EKONOMIKO ALTERNATIBOA



* Entreculturas-ekin batera
garatutako ekintzak


COMPARTE Garapen Sozioekonomiko Alternatiborako Latinoamerikako Erakunde Sozial Jesuiten Sarea

REAS Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarean Sarea
UNIJES Espainiako Unibertsitate Jesuiten Sarea

KAUSA



PARTAIDETZA ETA HERRITARTASUN GLOBALA INDARTZEA



* Entreculturas-ekin batera garatutako ekintzak

SJM Migratzaileentzako Zerbitzu Jesuita

VOLPA Pedro Arrupe Nazioarteko Boluntarioak

KAUSA



GENERO-EKITATEA SUSTATZEA



* Entreculturas-ekin batera garatutako ekintzak

COMPARTE Garapen Sozioekonomiko Alternatiborako Latinoamerikako Erakunde Sozial Jesuiten Sarea
SJM Migratzaileentzako Zerbitzu Jesuita



Umeei ematen
dieguna umee
gizarteari emango
diote.

Karl A. Menninger

ADIERAZLE OROKORRAK

		ADIERAZLEA	2025ERAKO HELBURUA	2018KO AMAIERAN
Bolumena	1	Jardueraren bolumen osoa	10,5 M €	9,5 M €
	2	Diru-sarrera publiko guztien %	% 46	% 38
	3	Partikularrengandik jasotako funtsak	2.250.000 €	2.299.661 €
Finantzaketa	4	Erakunde pribatuetatik, enpresetatik eta fundazioetatik jasotako funtsak	950.000 €	922.795 €
	5	Jasotako oinordetzak edo legatuak	500.000 €	730.132 €
	6	Finantzataile nagusiaren diru-sarreraren %	% 23	% 28
	7	Nazioarteko lankidetzara bideratutako funtsen %	% 74	% 76
	8	Ekintza publikora eta partaidetzara bideratutako funtsen %	% 15	% 13
	9	Kudeaketara, kaptaziora eta marketinera bideratutako funtsen %	% 11	% 11
	10	Hezkuntza-eskubidera bideratutako funtsak	2.150.000 €	1.865.375 €
Funtsen erabilera	11	Lekualdatze behartuan bizimodu duina defendatzera bideratutako funtsak	2.400.000 €	1.511.000 €
	12	Gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzera bideratutako funtsak	2.500.000 €	1.870.000 €
	13	Genero-ekitatea sustatzearekin eta emakumeen eskubideak defendatzearekin zuzenean lotutako ekintzetan erabilitako funtsak	2.360.000 €	1.574.000 €
	14	Partaidetza eta herritartasuna sustatzeko ekintzetan erabilitako funtsak	1.500.000 €	1.448.000 €
	15	Ekonomikoki laguntzen dituzten pertsonen eta erakunde pribatuen kopurua	6.000	5.900
	16	Gure proposamenen bat erabiltzen dituzten zentroen kopurua	235	215
	17	Harremana dugun hezitzaileen kopurua	1.600	1.315
Gizarte-oinarria	18	Urtean harremana dugun taldeen kopurua	40	34
	19	Hedabideetako eta besteren argitalpenetako agerpen kopurua	400	413
	20	Gure webguneak eta plataformak bisitatzen dituzten pertsonen kopurua	250.000	244.419
	21	Sare sozialetako jarraitzaileen eta ziberekintzetako partaideen kopurua	30.000	22.431
	22	Hegoaldean ditugun erakunde elkartuen kopurua	100	107
	23	Babesten ditugun nazioarteko lankidetzako proiektuen kopurua	235	243
Onuradunak	24	Nazioarteko lankidetzako ekintzen onuradun zuzenen kopurua	600.000	503.165
	25	Urtero prestakuntza jasotzen duten pertsonen kopurua	6.000	5.816
Alboan-en lantaldea	26	Kontratututako lanaldi osoen kopurua (gizonak eta emakumeak)	38	44,61
	27	Boluntarioen eta kolaboratzaileen kopurua (emakumeak eta gizonak)	275	260

Giza arrazaren
erdia askatu
behar ditugu,
emakumeak,
haiek beste erdia
askatzen lagun
dezaten.

Emmeline Pankhurst

ALBOAN-EN PLAN ESTRATEGIKOAK AGENDA 2030EKO GJHEN ALDE EGITEN DITUEN EKARPENAK *

	1. GIZARTIA	2. ENBERE GIZ	3. HEZKUNTZA	4. ENBERE GIZ	5. ENBERE GIZ	6. ENBERE GIZ	8. ENBERE GIZ	10. ENBERE GIZ	12. ENBERE GIZ	13. ENBERE GIZ	15. ENBERE GIZ	16. ENBERE GIZ	17. ENBERE GIZ
1. HE. Bizitzan pertsona guztiak hezkuntza-eskubidea eta ikasteko eskubidea izango dutela bermatzea.	✓	✓	✓	✓	✓			✓				✓	✓
2. HE. Mugikortasun behartuko testuinguruetan pertsonen bizimodu duina eta eskubideen errespetua defendatzea.	✓	✓		✓	✓			✓				✓	✓
3. HE. Harreman ekonomiko eta sozial bidezkoak, ekitatiboak eta jasangarriak lortzen lagunduko digun gizarte- eta ingurumen-justizia sustatzea.	✓			✓	✓	✓		✓	✓	✓			
4. HE. Guztion onerako herritasun globala eta partaidetza demokratikoa eraiki daitezen sustatzea.				✓	✓	✓		✓	✓	✓	✓	✓	✓
5. HE. Emakume eta gizonen artean harreman ekitatiboak eraikitzea eta genero-indarkeria murrizten laguntzea.	✓			✓	✓		✓					✓	✓
6. HE. Jesusen Lagundiaren misioaren inguruan antolatzea eta lan egitea.	✓			✓	✓						✓		✓
7. HE. Nortasun komuna duten elkartasun-komunitate kohesionatuak.	✓			✓	✓			✓					✓
8. HE. Jasangarritasun instituzionala misioaren zerbiztura.												✓	✓

* 2030erako Nazio Batuen Garapen Jasangarriko Helburuak





www.alboan.org

BILBO

Aita Lojendio, 2- 2.a | 48008- Bilbo
Telefonoa: 944 151 135

IRUÑA

Barañain etorbidea, 2 | 31011- Iruña
Telefonoa: 948 231 302

DONOSTIA

Andia, 3 | 20004 - Donostia
Telefonoa: 943 275 173

GASTEIZ

Estenaga Apezpikua, 1 | 01002 - Gasteiz
Telefonoa: 945 202 676

